



OIARTZUNGO
UDALA

M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO UDALERRIKO TXARAGAIN ETA ISASTI EREMUE TAN, KABLEATUEN, LUMINARIEN ETA ARGITERI KAXEN ORDEZKAPEN PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.

2009ko martxoaren 17an Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Txaragain eta Isasti eremuetan kableatuen, luminarien eta argiteri kaxen ordezkapen proiektua” obrak behin behingo izaeraz Gumendi Instalazioak S.L. esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Gumendi Instalazioak S.L. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Txaragain eta Isasti eremuetan kableatuen, luminarien eta argiteri kaxen ordezkapen proiektua” obrak behin-betiko Gumendi Instalazioak S.L. enpresari (NIF B-20844924) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 31.212,41 €koa da (BEZ kanpo). BEZ-a 4.993,99 €koa da. Beraz, kontraturen prezioa guztira 36.206,40 €koa da.

Bestalde, egikaritze epea 3 astekoa da eta obran 6 pertsona okupatuko ditu, 3 enpresan integratutakoak eta 3 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Montajes Eléctricos Hernani S.L.
- Electricidad Goikoetxe S.L.
- Jexux Saavedra Lekuona jauna
- Alensa S.L.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

